

# BERRIGARA

9. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, abenduak 13

Sastre eta  
jostunen eguna

# Santa Luzia

## Autoberezi

**FIAT** *Alfa Romeo*

1995KO URTEKO KOTXEA

ANTIGUA AUZOA  
ANTZUOLA

1996KO URTEKO KOTXEA





## VENTANAS SAN MIGUEL

*Ventanas San Miguelekin...  
denean irabaziko duzu.*


*Erosotasunean irabaziko duzu.*

*Aurrezpenean eta energian  
irabaziko duzu.*

*Isolamenduan irabaziko duzu.*

*Konfortean irabaziko duzu.*

**Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21**



*Etorri gurea!  
Denean irabaziko duzu.*



ARRASATE ERDIALDEKO  
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

**Arrasate erdian,  
Deba Garaiko merkatalgunerik  
handiengan, erosketak izen propioa du.**



Azaroaren 18tik  
urtarrilaren 4ra arte  
Arrasate erdiko 100  
komertzio eta zerbitzuko  
**AUTO BAT** dohainik  
lortzeko aukera  
ematen dizute.  
Etorri eta egiazta ezazu!!!

Erdialdea bisitatzen duzunean  
aparkalekua erabil ezazu.  
Denok eskertuko dugu.

## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
0570 Bergara  
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

## argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

## zuzendaria:

Agustín Azkarate

## redakzioa:

Agustín Mendibil  
Agustín Elkorobereziar  
Agustín Azkondo

## laketazioa:

Agustín Azkarate

## publizitatea:

Agustín Azkarate

## larpidetzak:

Agustín Elortza

## estuen zuzenketak:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

## redakzio kontseilua:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkorobereziar

Agustín Labaien

## komikiak:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugalde

Agustín Azkarate

## lanaketa:

Agustín Xangorri taldea

## tirada:

200 ale.

## distribuzioa:

Agustín Coop. Elk. (Zubillaga, Oñati)

## copyright:

BERRIGARA

## lege gordailua:

75/50/91

## ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?


## JUAN MARI MENDIZABAL

## EKBko kidea

- Zein da Eman euskarari berea kanpainaren helburua?

- Euskaltzaleon artean zabaldua dagoen kezka gizartera zabaltzea. Azken urtetan kezka sortzen joan da gauza askoren inguruan: Arartekoa erdalduna aukeratzea, euskararen aldeko laguntzak murriztea, euskalduntze lana kuestionatzen duten deklarazioak, etabar. Kezka hori euskaldun eta euskaltzaleon artean geratu da eta gizarterean nahiko aparte dago. Euskararen aldeko politikan aurrera ez dela egiten ikusi dugu, eta Nafarroan eta Iparraldean egoera txarragoa da. Hori aldatzen hasteko jendea lehenbizi arazoaz enteratu behar da.

- Kanpaina amaitze-



## ko bihar manifestazioa Bilbon...

- Administrazioa esparru guztietan lana egin behar dela konturatu behar da. Borondate politikoa behar da eta kanpaina hori mugitzen hasteko aportazio txiki bat besterik ez da. Eta hortik aurrera lan pillo bat izango da, hemen ez da ezer amaitzen. Gizarterean laguntza espero dugu.

**“Euskaltzaleon kezka gizartera zabalduta nahi izan ditu Eman euskarari berea kanpainak”**

## I T U R R I O N E T I K

## Forum Cinematographe taldearen emanaldia abenduaren 26an

Forum Cinematographe taldea Gabonetarako zine emanaldi berezia prestatzen ari da. Uda ostean, herriko zinezale taldeak ez du emanaldirik antolatu eta fetxa berezietan proiektio puntualak egingo zituztela adierazi zuten. Lehendabizikoa Gabonetan egingo dute eta abenduaren 26an beraz Aki

Kaurismäki zuzendari finlandiarraren *La vida de Bohemia* filmea ikusteko aukera izango da. Aipatutako filmea 1991 urtekoa da eta Kaurismäkik zuribeltzean errodatu zuen, Henry Murgeren nobela batean oinarrituz. Puccinik ere nobela hori erabili zuen *La Bohème* opera famatua konposatzeko.

E S A N  
D U T E

“Hizkuntzak ikasteko erreztasuna baino konstantzia daukat.

Garai hartan langabezia kobratzen ari nintzen, eta neukan urte eta erdirako. Denbora hura nuen euskara ikasteko, besterik ez.

Eta lortu nuen. Gogoia eta denbora behar da ikasteko.

Nik egun osoa pasatzen nuen euskara ikasten. Ez da kortuan hartu behar urte eta erdian ikasi nuela, baizik eta denbora horretan eguneko ordu guztiak euskarara zuzenduak izan nituela”

**NORA PALMITANO**  
Egunkaria  
EGUNKARIA

“Grezian, Turkian, Pakistanen eta Indian hiru hilabete eman ondoren, Benares hiria da gehien harritu nauena. 20 egun eman nituen han eta oso polita da: kale hestak ditu, jende pilo batekin, kolorez estalita eta gizon santu pilo batekin. Indiako herririk santuena da eta Ganges ibaiaren ondoan dago”

**XABIER ERRASTI**  
Irakaslea  
EUSKADI GAZTEA



**EN HONOR A LA VERDAD**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**TWISTER**

Domeka: 11:30 (Matinala).



**EL ODIO**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

**Zinea**

▼▼ *Nathaniel Serling* koronela (**Denzel Washington**) Golkoko gerratik itzultzean, *Karen Walden* kapitanaren (**Meg Ryan**) espedientea aztertzeke agindua emango diote. *Walden* gerran hil zuten eta *Serlingek* soldaduen bertsio ezberdinak entzun eta gertatutakoa argitu beharko du... **Lou Diamond Phillips** eta **Scott Glenn**ekin.

▼▼ **Jan De Bont** zuzendariaren filme honetan efektu bereziak dira protagonista nagusiak. Estatu Batuetan, tornadoen jatorria eta izaera aztertzeke bi ikerlari talde ari dira lehian: *Jo* (**Helen Hunt**) gaztearen taldeak tornadoen intentsitatea neurtzeko aparailua landu du baina *Jonas* doktorearen (**Cary Elwes**) taldeak metodo hori kopiatu eta *Jo* eta bere lagunak jarraituko dituzte...

▼▼ **Mathieu Kassovitz** zuzendariaren filme honek hainbat sari lortu zituen iaz: zuzendari onenarena Cannesen, Gazte Saria Donostian edo Europako gazte filmerik onenarena. *Abdel Ichab* 16 urteko gaztea hil zorian dago poliziaren galdeketa baten ondorioz eta Paris inguruko herri bateko gazteek euren gorrotoa azalduko dute...

**Deiak**

▼ **1975ean** jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoek bazkaria abenduaren 28an Antxon jabetxean. Izen-ematea (1.000 pezeta deponitoa) Antxonin bertan egin daiteke abenduaren 23a bain lehen.

▼ **Manu Muniategi**ren marrazki erakusketa Donostiako Diarte galerian igandera arte.

▼ **Pol-Poleko** gazte sailak Aitzakorria mendi irteera iragarri du abenduaren 31rako. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, 18:30etan Seminarioko bajuetan. Bergarako odol emaleei parte hartzeko deia egiten zaie.

**Ogia**

▼ **Domeka 15:** Konde.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 13:** Puy.
- ▼ **Zapatua 14:** Guallar.
- ▼ **Domeka 15:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 16:** Estella/Español.
- ▼ **Martitzena 17:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Eguaztena 18:** Camacho/Irizar.
- ▼ **Eguena 19:** Puy/Amezua.



**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

# Piotr Klemenski

## Organujole poloniarren kontzertua zapatuan San Pedron

**Piotr Klemenski** organujole poloniarrek kontzertua eskeiniko du zapatuan arratsaldeko 8etan San Pedro parrokian.

Klemenskik Gdansk-eko (Polonia) Musika Akademan burutu zituen organu ikasketak, A. Perucki irakaslearen gidaritzapean. Era berean, nazi-orteko hainbat ikastaro egin ditu azken urteetan G. Bovet, H. Metzger, B. Oberhammer edo U. Spanghansen maisuekin. 1992-93 ikasturtean, G. Parodi irakaslearekin ikasteko beka eskuratu zuen Eliz Musikako Instituto Pontifizioan, Polonian bertan.

Hiru urtez Gdunia-ko Musika Eskolako irakaslea izan da eta gaur egun Runiako Andre Mariaren abesbatzaren zuzendaria da Klemenski. Aldi berean, iaiztik, Gdansk-eko Oliwa katedraleko organu aurkezlea da.

Piotr Klemenskik hainbat kontzertu eman ditu Polonian eta Italian eta



San Pedro parrokiko koruan izango da Klemenskiren kontzertua. Goian Roberto Bonettok eman zuen kontzertuko irudia.

Runia-ko Andre Mariaren grabazio berezia bat egin elizan organurako obren zuen.

Bihar San Pedron honako erreperitorioa eskeiniko du organujole poloniarrek: "Jainko Santua" temaren gaineko bariazioak (Mieczystaw Sunyinski), "Elegia" (Sunyinski), "Scherzo", sol minorean (M.E. Bossi), "Berceuse" (E. Torres) eta, azkenik, "Lehenengo sonata", re minorean (A. Guilmant).

Biharko kontzertua San Pedroko koroan izango da eta sarrera debaldekoa izango da.

### Margo erakusketa

Gaurtik eta abenduaren 29ra arte ikusgai izango da Kultur Etxean Bergarako pintore eta margolarien erakusketa. Erakusketan herriko 29 artistak hartuko dute parte, bakoitzak lan bat aurkeztuko duelarik. Bergarako pintore eta eskultoreek urteroko erakusketa egiten dute fetxa hauetan, Gabonen atarian. Jarraian herriko eskultoreen txanda izango da, abenduaren 30etik urtarrilaren 12ra.

Erakusketa zabalik izango da astelehenetik ostiralera, 6etatik 9etara eta larunbat eta jaiegunean 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

**Organu kontzertuaz gain, gaur bertan zabalduko da Kultur Etxean herriko pintore eta eskultoreek prestatutako erakusketa**

*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
**BERGARA**



Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA  
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...

**Eman euskarari berea**

EKB-k "Eman euskarari berea" lemapean kanpaina bat martxan jarri du herritarrei euskararen benetako egoeraren berri emateko.

Kanpaina honen helburua: euskara eta berreuskalduntze prozesuaren egoera larriaren kontzientzia zabaltzea da eta politika mailan, euskara hizkuntza ofiziala bezala aldarrikatzea.

Azken urteotan hainbat sektoretatik (alderdi politikoetatik, instituzioetatik...) euskararen egoera hoberruntz doala zabaldu da. EKB-k azaldu nahi du euskara gaur egun egoera kezagarrian aurkitzen dela, hau da, zabaldu den mezua ez dela egia, eta frogatzen duten hainbat datu eskuartearen ditugu. Adibide bezala Nafarroako egoera dugu: bertan vascuenceren legearen ondorioz herrialdea zatitua dago, beraz euskara ez da ofiziala lurralde osoan. Honez gain eskolak euskalduntzen dituen umeak gero euskaldun mantentzen diren ezin izan zihurtatu erderaren eragina nagusitzen delako esparru guztietan.

Euskal Herrian Euskarazek ere kanpaina hau bultzatzen duenez, abenduak 14an Bilbon izango den manifestaldira dei egiten dizugu.

**BERGARAKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

**Euskal presoak  
Euskal herrira**

Azken hilabeteotan euskal gizarteako sektore guztietako jendea ari da parte hartzen euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko gizarte mobilizazio erraldoi eta iraunkor honetan. Milaka eta milaka dira presoaren aldeko ehundaka ekimen eta bestelako ekintzekin bat egiten dutenak, Euskal Herriko azken txokotik hasi eta gure geografia-aren mugetatik kanpo bukatuz. Tamalez, ordea, komunikabide gehienek ez diote gizarte-mobilizazio erraldoi honi behar besteko erantzuna ematen.

Guk oso argi dugu hau dela jarraitu eta indartu beharreko bidea. Euskal gizarteak agintariak presionatu behar ditu, euskal presoek behin eta berriz jasaten dituzten eraso bortitzak lehenbailehen buka daitezzen, dispartzioaren politika, presoaren aurreko zigorrari erantsitako beste bat, senide eta lagunei eragiten diena, bertan behera uzteko. Kartzeleroen jipoiak, mehatxu larriak, txantxiak eta probokazioak behin betikoz amai daitezzen. Politikoei, hitzez gain, beren erantzunkizunari ekingen bidez erantzun diezaioten. Gaixotasun sendaezinak dituzten presoak askatasuna eskura dezaten, eta zigorraren 3/4 bete duten 100 preso inguruk kalean jar ditzaten.

Funtsean, beraiek egindako Espetxeetako Legeriak berak agindutakoa bete dezatela. Zentzu honetan, esan behar dugu orain dela 15 egun Bilbon elkartu ginen pertsona uholdeak argi eta garbi adierazten zutela

herri honen nahia zein den, eta egunero erren buruak demokratizatzen azaltzen dituzten horretarako, demokrata ez beste edozein gauza direla.

**LABEKO BERGARAKO HERRI BILTZARRA**

**Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ**



**Mariaren Lagundiko gurasoak**

Aurtengo elkartasun kanpaina aurkezteko, dei egiten zaie Mariaren Lagundiko gurasoei martitzenean, abenduak 17, arratsaldeko 7etan Ikastolako Alde Zaharrean egingo den bileran parte hartzeko. Bileran aurtengo udaran Chepenen (Perun) burututako solidaritate lan kanpaldiko bideoa ikusteko eta bertan egon zirenekin berba egiteko aukera izango da.

**Aste musikala**

Musika Eskolak *Aste Musikala* antolatu du. Martitzenean, hilak 17, solfeoiko ikasleek Gabon kantak eskeiniko dituzte Mariaren Lagundian 18:30etan; asteazken eta eguenean instrumentu emanaldiak izango dira 18:30etan Zabalotegin.

Joan zen eguenean San Martin plazan emandako prentsaurrean amaitutzat eman zuten Goiko Estazioko etxea okupatu zuten gazteek euren protestaldia.



**Udaletxeko arkupean egon diren gazteek protestaldia amaitu dute**

Hamabost egunez Udaletxeko arkupeak okupatu zituzten gazteek euren protestaldia amaitutzat eman zuten joan zen eguenean. Gazteak Udaleko Kultura Batzordeko ordezkariekin harremanetan dira egunotan Udalak lokal bat laga diezaien. Gazteen hitzetan, "Goiko Estazioko Zentral Elektrikoa, gaztelua emateko aukera azaldu digute eta beraz abenduren 18ra arte, Udalaren erantzuna jaso arte, protestaldiari lagako diogu eta erantzunaren arabera erabakiko dugu zer egin. Dena dela, ez diogu organizatzeari utziko, lokal aske eta auto-

gestionatu bat aurrera eramateko eskubide osoa daukagularako".

Esan bezala, gazteak (25 inguru) bi astetan izan dira Udaletxeko sarreran, Goiko Estazioko edifizioaren botatzeaz eta azken hiru urtetan jasan duten egoeraren aurrean protesta egiteko. Gazteek oso positibotzat jo zuten protestaldia eta beste kolektibo batzuren laguntza jasotzea azpimarratu zuten.

Orain Udaleko ordezkariak eta gazteak aukera ezberdinak aztertzen ari dira. Gazteek prentsaurrean azaldu zuten, "lokalen zerrenda bat entregatu genion Udalari baina gebienak pribatu-

ak dira. Goiko Estazioko zentral elektrikoa ere beste aukera bat da: espazio baldintzak betetzen ditu baina guk egin genitzakeen berrizte lanak beharrezkoak dira".

Aurrekoetan ezadostasunak izan dira lokalaren funtzionamenduari: Udalak estatutuak eta ordezkari batzuren izendatzea eskatzen omen die gazteei eta hauek eurek jestionatutako lokala izatea nahi dute baina badi-rudi bi aldeak konponbide batera heldu daitezkeela. Udaletik, herriko beste taldeen eskaerekin gertatzen den moduan, gazteen lokalaren eskakizuna aztertuko dela adierazi dute.

**HILDAKOAK**

- Joaquin Soto Garcia**  
Abenduak 6, 75 urte.
- Esteban Etxeberria Belzunegi**  
Abenduak 6, 84 urte.
- Felix Miguel Santamaria Ajuriagerra**  
Abenduak 9, 61 urte.

**JAIOTAKOAK**

- Iñigo Astiazaran Orbea**  
Abenduak 2.
- Aitor Sanchez Luque**  
Abenduak 5.
- Andrea Rubio Hidalgo**  
Abenduak 9.

Zure konfidantzako denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

## Bergarar batek 20 milioi irabazi Bono-lotoan

Bergarar batek 20 milioi irabazi ditu, eguakitzeko Bono-lotoan 5 zenbaki eta zenbaki osagarria asmatu ondoren. Konbinazio saritua honako hau zen: 3-10-13-24-34-42. Zenbaki osagarria, berriz, 27a izan zen. Boletoa Idatzi liburudendan seilatu zuen irabazleak baina nor den jakitera ez emateko eskatu zien Idatzikoei.

## Gabonetako kontzertua datorren zapatuan

Datorren zapatuan, hilak 21, Frontoian izango den Gabonetako kontzerturako sarrerak astelehenetik izango dira salgai Kultur Etxean, Musika Eskolan eta Frontoiko tabernan. Sarrerak 800 pezetan eta 500 pezetan (Gazte Txartela dutenentzat eta langabetuentzat) eskuratu ahal izango dira.

## Bergarako liburuak Durangoko azokan

Kultur Batzordeko ordezkariak positibotzat jo dute Udalak argitaratutako liburuek Durangoko liburu eta diskaren azokan izandako harrera. Udalak ikerlan saileko bilduma osoa eta beste hainbat egileren lanak eraman zituen Durangora. Bildumako libururik salduena (18 ale) Ibañez, Ortega, Santana eta Zabalaren "Casa, familia y trabajo en Bergara" izan zen. Bestelakoetan, *Gida turistikoa* izan zen salduena (28 ale), *Bergarako artearen* (25). Kultur jostoreak azpimarratzen duen moduan, "gehienak ez dira errez saltzen diren liburuak, adituentzako dira baina kontsulta ugari jaso ditugu".



laz 176 karta aurkeztu ziren. Argazkian joan zen urteko irabazleak.

## Amodiozko Gutunen bosgarren edizioa antolatu du Jardunek

*Kartak entregatzeko epea urtarrilaren 17ra arte zabalik*

Jardunek Amodiozko Gutunen V. Berrigara Lehiaketa deitu du. Lehiaketan 14 urtetik gorako guztiek parte hartu ahal izango dute eta lanak entregatzeko epea urtarrilaren 17ra arte izango da zabalik. Lanen luzera, gehienez, bi orrialdekoa izan beharko da eta, DIN A-4 neurriko orrietan, eskuz zein makinaz idatzita (makinaz lerro arte bikoitzez) bidali daitezke. Aurreko edizioetan bezala lau sari emango dira: irabazleak 75.000 pezeta eskuratuko ditu; bigarrenak 40.000, Bergarako lan onenari 25.000 pezeta emango zaizkio eta, azkenik, Irakurleen Saria irabazten duenak Xabier De Zerrioren eskultura bat erango du. Lana ezizen batekin sinatu beharko dira eta beste sobre

itxi batetan, kanpoaldean ezizena eta barruan egilearen datuak azaldu beharko dira. Lanak Jardunen Masterreka 13an jasoko dira. Ohizkoa den bezala, sari banaketa otsailaren 14an, San Balentin egunean egingo da Kartzela Zaharrean.

Aurtengoa, bosgarren edizioa izango da. Aurreko ediziotan erantzun bikaina jaso du Amodiozko Gutunen lehiaketak eta Eba Alberdi Jarduneko dinamizatzaileak azpimarratzen duen moduan, "izen propioa duen lehiaketa biburtu da eta erantzuna ezinhobea izan da orain arte. Aurten ere bide beretik jarraitzea espero dugu". Iaz 176 lan jaso ziren eta irabazlea Imanol Sorondo hernaniarra izan zen. Bergarar onena, Iñigo Iñurrategi izan zen.



### KORTA-ZAR

#### Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO  
9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



**■ Supermerkatua azokan**

Oxirondoko azokan supermerkatu bat jartzeko aukera aztertzen ari da Udala. Uda aurretik, IFA-Unialco kateak kontsulta bat egin zuen Udalean azokan supermerkatua jartzeko eta Udalak azoka dinamizatzeko aukerak aztertzeke estudioa egitea agindu zion Donostiako CKL enpresari. CKL enpresak bere azterketa amaitu ondoren, Udalak supermerkatua jartzeko aukerari eutsi nahi dio. Oraindik ezin da esan IFA-Unialco katea izango den supermerkatua zabalduko duena, Udalak baldintza pleguak kaleratu beharko dituelako. Supermerkatua jartzeagatik 10 milioi pezeta eskatuko dira. Hasierako ideia arabera, aipatutako supermerkatua

azokako sotanoan kokatuko litzateke eta baserritarrak, berriz, lehen pisuan jarriko litzateke postuak obrak amaituta eta gero. Orain dagoen hutsunea estali egingo litzateke eta beraz postu fijoan maila berean joango lirateke baserritarrak. Postu anbulanteak, berriz, Santa Marina inguruan jarriko lirateke aurrerantzean eta horretarako lan batzuk egitea beharrezkoa litzateke. Bestalde, azokan postu fijoak dutenek fruta posturen bat zabaltzea ere beharrezkoa jotzen dute azokara orain baino jende gehiago erakartzeko. Supermerkatua jartzen duen enpresak 70 milioi pezeta inguruko inbertsioa egin beharko du. Bertan 10 lanpostu sortuko dira eta Udalak bergararrak izatea eskatuko du.



Oxirondoko azokako behealdean supermerkatua jarriko da seguruen.

**IV. Futbolin Opena Bergaran**

LAMEk antolatuta, IV. Futbolin Opena jokatuko da Arrano, Oilagorra eta Pol-Pol tabernetan. Izen-ematea abenduaren 20ra arte izango da zabalik eta taberna bakoitzetik lehen hirurak salikatuko dira. Finala, berriz, urtarrilaren 3an jokatuko da.

**Erakusketa Arans-Gin**

Gorren kolektiboak antolatutako erakusketa ikusgai izango da Arans-Gin abenduaren 20ra arte, astebarruan 3retatik 5etara eta zapatutan 3retatik 8etara. Guztira, 40 artista ingururen lanak ikus daitezke.

**Jostunentzako jaialdia Jam aretoan**


Jam aretoak jostunei zuzendutako jaialdi berezia iragarri du bihar zaturako. Datorren eguakitzean, berriz, Baron Rojo eta Flytter taldeen kontzertua izango da.

**Jubilatuen oharrak**

Jubilatueta nagusien autobabeserako ikastaroa izango da abenduaren 17, 18 eta 19an. Bestalde, Diputazioak antolatzen duen Gabonak programarako (egonaldiak Orly hotelean) eskaerak eguastena baino lehen egin beharko dira.

**CT**  
**CYBERTRAC**

Ordenagailu Salmenta  
Zerbitzu teknikoa  
Urtatza 46 1.D  
☎ 73 09 70



PENTIUM 120 MHz: 104.900 pta.  
PENTIUM 150 MHz: 124.900 pta.  
Programa eta jokuak instalatzen ditugu.

**GARANTIA: 2 URTE**

**Pentium 133 MHz: 109.900 pta.**

**EMILIO PERNAUT**  
doktorea

traumatologia eta zirurgia ortopedikoa  
Kontsulta: PAKEA, Amillaga, 8 Bergara ☎ 76 13 49

**EGUNA ETA ORDUA ESKATU BEHAR DIRA.**



**AZPEITXI**

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

**Jatetxea**

**JOSTUNVEN JAIA**

sala

aretoa



**NICE BOYS**  
*show*

**SARRERA  
+  
TXANPAN  
KOPA:**

**1.500 pta.**



**ABENDUAK  
LARUNBAT**

**GAUEKO  
12:30ak**

**BERGARA**

# Salam Daha

## Frente Polisariokoa

**Bergarako Komite Internazionalistak taldeak antolatutako hamabostaldiaren barruan, Mohamed Salam Daha Frente Polisarioko Euskal Herriko ordezkariak saharaiuen gorabeherak azaldu zituen martitzenean Miguel Altuna Institutuan emandako hitzaldian.**


**- Zein egoeratan aurkitzen da gaur egun Saharako konfliktua?**

- Momentu erabakiorra da gaurkoa. 20 urtetan independentziaren alde borrokatu ondoren, ONU erakundeak aurrera eramanez nahi izan duen pake prozesua ia erabat geldirik dago. Marruekos pake prozesu hori blokeatzen eta saboteatzen izan da, eta pake plana Marruekos-eko Barne Ministeritzak landutakoa dela ematen du. Marruekosek ONU Nazioarteko erakundeko Idazkari Orokorren konplizitateak dauka, marrokiar gobernuaren lagu-

na delako eta horregatik pake prozesua deskafeginatzen hasi da eta gure lurraldearen okupazio ilegalak botazioz legalizatu nahi da.

**- Zein izan daiteke irtenbidea?**

- Ez gaude prest plan horren baldintzak eta erabili nahi diren irizpideak onartzeko eta beraz plan hori ez da martxan jarriko saharaiuen oniritziarekin. Gu gara botoa emateko eskibidea dugunak, ez marrokiarrak. Marruekos-ek saharaiuen hautesleen artean marrokiarrak sartzeko asmoa dauka eta hori onartezina da. Soluzioa? Bi aukera egon daitezke: batetik, ONU erakundeak bere irizpide eta erabakiak inposatzea eta Sahararen nazioarteko legalitatea ematea bi alde-arteko negoziazio posibleen bitartez. Hori bide pazifikoa litzateke; bestetik, 1973an hasitako biderei eustea litzateke beste bigarren aukera, gure independentziaren



"Euskadin nire herriarekiko elkartasuna adierazi didade toki guztietan".

eskubidearen alde borroka armatuarekin jarraitzea hain zuzen. Irtenbidea paketsua izateko blokeoa dago eta beraz nire ustez borroka armatuari eutsi beharko diogu.

**- Zeintzuk dira ONUk hartutako erabakiak auzi honetan?**

- Nazioartean erabakiak hor daude eta Saharako herriaren autodeterminazioa eta independentziarako eskubidea jasotzen da, baina oraindik inork ez du hori aplikatzeko ardurarik hartu. Marruekosek nazioarteko laguntza militarra dauka nahiz eta gure lurraldeen okupazioa indarrez egin. Nazioarteko komunitateak indartsuenaren aurrean begiak ixten ditu eta, beti bezala, ahulena da egoera horren ondorioak

jasan behar dituen. Horregatik saharaiak gordelekuetan jarraitzen dute, exodoan, egoera zailenetan gainera. Eta horrez gain esan behar da nire herriak bizi duen egoera ixilean eta ia ezkutuan mantentzen dela nazioarte mailan.

**- Azkenik, Euskal Herrian eman duzun denbora, nolako erantzuna jaso duzu?**

- Nik zubi lana egiten dut hemen jasotzen dudana solidaritatea nire herrira eramateko eta guztiz pozik nago hemengo esperientziarekin. Etxean bezala sentitzen naiz, 6 urte daramatzat Euskal Herrian eta nire herriarekiko elkartasuna baino ez dut jaso. Giza laguntza eta laguntza politiko izugarria eskeini didate hemen.

**"Autodeterminazio eskubidea aitortu zaio Saharako herriari baina ez da indarrean jarri"**

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Masterreka 24

Nepal, India eta Hego  
Amerikako jantziak

Masterreka, 24 BERGARA

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA  
Tfnoa: 76 18 23

# Santa Luzia

## Sastre eta jostunen zaindari

**Santa Luzia eguna heldu da. Jostunek eta optikoek, ikusmenaren zaindariari urte oparoa eskatzeaz gain, eguna ospatzeko afaria egingo dute, han eta hemen, ohiturari jarraituz.**

**G**arai batean, josten ikastea oso garrantzitsua zen. Orduan ez zegoen jantziak saltzen zituen dendarik eta praka edota soineko baten beharra bazegoen, oihala erosi eta jostunarengana joan behar zen. Gaur egun egoera aldatu egin da: hala ere, jendeak ez dio josteari utzi. Makina batek etxean josten du, eta beste asko ikasten ari da.

### Josten ikasteko beharra

Zezipia Bikuñak, bizitzan zehar izan duen ofizio bakarra, jostea izan da. 81 urte ditu eta 11-12 urte zituela hasi zen josten. Harrez gero, jantziak egiten eta josten irakasten ibilia da. "Etxean gurasoak eta hiru anai-arreba izanda, apurtzen ziren prakak eta bestelakoak, konpondu egin behar ziren. Orduan ez zegoen jantzi dendarik eta prakak eta soinekoak etxean egiten genituen. Josi nuen lehendabiziko gauza, piano batentzako tapetea izan zen. 8 urte nituela, 13 urterekin, Bilbora etxeko lanak egiten



Lehen baino gutxiago bada ere, gaur egun ere badira josten ikastera joaten direnak.

*ikastera joan eta erropa zuria edo barruko erropa josten ikasi nuen". Bilbotik bueltan, auzokide baten etxean, ikasten jarraitu zuen. "Era guztietako erropa egiten genuen, gazteendako, gizonetzkoendako, emakumezkoendako, praka, soineko eta bestelakoak... Korteak egiten ere ikasi nuen. 17 urterekin, nere kabuz hasi nintzen lanean".*

### Gerra garaian jostun

1936ko irailean, 20 urte zituela, gerra lehertu eta Bilbora bidali zuten, Deuston zegoen, "Industrias de Guerra Gipuzcoanas" edo eskolapioak deituriko enpresan, jostera. "Frentean zebiltzanen-

*dako alkondarak, prakak, pontxuak, kaikuak... egiten genituen, gau eta egun, 6 pezeta-ren truke. Ondoren, Bilbo hartu zutenean, Balmasedara alde egin behar izan genuen".*

Bilbo inguruan zegoen egoera gogorra ikusirik, Frantziara ihes egiteko pasaporteak lortu zituzten. "Asmoa ihes egitea zen baina harrapatu egin gintuzten eta Bergara etortzean, zigor gisa, orain Gazteluko zerrategia dagoen tokira, falangisten eta militarrentzako arropak konpontzera, garbitzera eta plantaxtzera bidali gintuzten".

Urtebetez jostun ibili ondoren, gerra amaitzeaz bat, etxean jendeari era-

kusten hasi zen. "Garai latzena gerra ondorengo izan zen. Aita kartzelan zegoen eta anaiak ere kanpoan izatean, etxera dirua ekarri behar zenez, josten irakasten hasi nintzen. Orduan ez zegoen ez oihalik, ez zapatarik, ez jatekorik, ez ezer. Askotan, zakuak eta gudariak lagatako mantak hartu, garbitu eta tindatu ondoren, jantziak egiten genituen. Soineko bat egiteak 3 pezeta inguru balio zuen eta ikasle bakoitzak ere, bilabete bakoitzeko, 3 pezeta ordaintzen zuen".

### 5 errealean truke

Gerra ondorengo garaia amaitu zenean, ikas-

## “Bergararak oso dotoreak izan gara beti. Domeka heltzen zenean, eta prozesioa egiten zenean armairutik jantzi dotoreenak ateratzen ziren lehen”

le asko izaten jarraitu zuen Zeziliak. “Ikasleek, lanetik atera ondoren, jantziak egiten laguntzen zidaten eta borren ordainean, josten ikasten zuten”. Lantegietarako praktikak ere egiten zituen. “Lantegitik moztuta ekartzeko zizkidaten. Patroia eginda. Egunean 4 praktika eginez gero, 5 erreal jasotzen nituen”.

### Ohitura galduta

Urteetan zehar, Santa Luzia eguna ospatu arren, dagoeneko ohitura galdu du. “Santa Luzia eguna, berezia zen guztiontzat. Emakume mordoa elkartzen ginen. Bergaran eta Zumarragan ospatzen genuen. Afaria edo bazkaria izan ondoren, dantzara joaten ginen. Gaur egun berriz, ez gaude horrelakoetarako”.

67 urte zituela, lanbide gisa, josteari laga egin behar izan zion. “Senarra jubilatuta zenean, kanpora joateko gogoia zuela eta, ezin izan nuen josten segitu. Gaur egun, familiartekoendako jantziak egin arren, ez dut lehen bezain josten, hori borrela da”.

### Gaur egun ere jostungai asko

Gaur egun josten ikastea garai batean bezain garrantzitsua ez bada ere, jostungai ugari dago. Baztuk etxeko arropak kon-

pontzeko ikaste dute; beste askok, berriz, titulua eskuratu eta profesionalki aritzeko.

Ana Parrak, 44 urte ditu eta Anezka akademiako irakaslea da. 17 urte zituela, Donostian, josten titulua lortu eta klaseak ematen hasi zen. “Zumarragakoa naiz eta bertan hasi nintzen josten ikasten. Duela 20 urte, Bergarara heldu nintzenez, etxean hasi eta duela 11 urte Anezka zabaldu nuen”.

Jostean gain, oso garrantzitsua da moztu jakitea. “Gauza bat jostea


da eta beste bat mozte. Biak oso ondo ikasi behar dira, jendeak borrela ez dela uste badu ere”. Anezka akademiatik profesionalki dihardutenak ere atera dira. “Ikasle izan ziren bi neskek, dagoeneko akademia propioak dituzte. Bat, Bergaran dago lanean eta bestea EEBBetan”.

Jantzigintzaz gain, mantelak, kortinak, gantxiloa, edredoiak, gurutze puntua eta diseinua ere irakasten du. Eskolan eta ikastolan dabilen jendea ere izan du. “Eskolan, eskulanak egiten dira eta

opor garaian, lana aurreratzera eta trebetasuna lantzerantz etortzen dira”. Une honetan 16 urtetik 60 urtera arteko 20 bat ikasle daude.

### Titulua lortu

Kurtsoa, urriaren lehen eguneko egunean hasi eta uztailearen hamarrean amaitu arren, hilabete batzuetan jende gehiago izaten da. Egunean sei ordu betetzea beharrezkoa da. “Alde batetik titulua lortu nahi dutenak daude eta kasu bonetan, eskaintza handiagoa da.



Zezilia Bikuña: Gaur egun familiartekoentzako jantziak egin arren, ez dut lehen beste josten”.

# ARREGI

## Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.  
Tfnoa: 76 27 93

# SUBIJATI

## Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

# iRUDI

## Erlojudenda Bitxitegia

Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65



Ana Parrak, 16 urtetik 60 urte artekoei erakusten die josten egiten.

Bestalde, eguneroko lanak egin abal izateko josten ikastea nabi dutenak daude. Batzuk, gimnasia joateko obitura duten bezala, beste asko josten ikastera etortzen dira”.

Dirudien baino jende gehiago dago josten ikasten. “Akademia dagoenetik, ikasle kopurua antzerakoa izan da urtero, 20-30 inguru. Josten ikasteak ez du asko suposatzen, oso merkea da. Izan behar den gauza bakarra, ikasteko gogo eta gusto piskat izatea da”.

**Gizonak ere bai**

Emakumez gain, gizonetako ere izan dira josten ikasten. “Gizonez-

ko bat baino gehiago egon da nirekin. Ez da kopuru handia izan baina oso azkar ikasi zuten josten”.

**Desfileetako partaide**

Anak, Bergaran eta Donostian antolatutako desfileetan parte hartu izan du. Disenatzaile ezaguna izatea gustoko izan arren, kurtso bereziak egin behar izaten dira eta horretarako jarraipena egin behar da. “Bartzelonako eskolan izena emanda daukat baina ezinezkoa zait klaseak hartzea. Ikasten jarraitzea oso garrantzitsua da. Liburuak bidaltzen dizkirate eta tendentzia berriak liburuen bidez

ikasten ditut”. Urtero bezala, Anezka akademia-koek, Santa Luzia eguna ospatuko dute zapatu honetan.

**Sastreen eguna**

Santa Luzia eguna, jostunen eta optikoen eguna bezala ezagutu da. Jostunen kasuan, emakumeekin lotzen den eguna dela uste dugu baina, gogoratu behar da, sastre ugari izan dela eta beraien ere eguna ospatzeko ohitura dutela.

Jabier Mujikak 72 urte ditu eta plazan dagoen Mujika dendako jostuna da. 13 urte zituela hasi zen lanbidea ikasten eta 19 urterekin amaitu zuen. Bergaran hasi arren, Bartzelonan amaitu zituen

ikasketak. “Denda 1895. urtean nire osabak zabaldu zuen eta urte batzuk beranduago, aitak hartu zuenean, berarekin hasi nintzen lanean”.

**Zumarragan, Eibarren eta Bergaran**

Mujikatarrak, Zumarragan eta Eibarren ere dendak zabaldu zituzten. Jabierrek esaterako, Eibarren zabaldutako dendan 31 urte egin zituen. “Zumarragako denda 1935. urtean eraiki zen baina gerra garaian, denda osoa kendu ziguten. Han gertatutakoa ikusita eta Bergaran berdina gertatu ez zedin, hemen gertatu ginen. Eibarrekoa berriz, duela 40 urte inguru zabaldu genuen”.

Gaur egun ez bezala, garai hartan, jantziak neurrira egiten zirenez, sastreek lan ugari izaten zuten. “Gerra amaitu eta bi urte pasa zirenean, 1941. urtean, lan izugarria izan genuen. Gerraren ondorioz, Bergarako jende ugari atzerrira ibes egin zuen eta bueltan etorri zirenean, etxe janari eta jantzien falta nabaria zenez, lana ere handitu egin zen”.

**Jantziak neurrira**

Jabier, aspalditik dendan lanean izan arren, garai batean, tailerrean

**IGARZA**  
**MERZERIA**  
**LENZERIA**  
 Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**IZADI** PILI GISASOLA  
 Zurradero, 2  
 behea.  
 ☎ 76 58 83  
**Santiveri**  
 Osasun eta Dietetikan  
 espezializatutako zentrua

**ITXASMENDI**  
**ERREKADISTA**  
  
 Barrenkale, 36  
 BERGARA  
 ☎ 76 50 64 / 76 13 61  
 EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,  
 ARETXABAETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.

jostun egiten zuen lan. "Jantziak tailerrean egiten genituen, guztiak neurrirra. Trajeak egiten genituen gebien baina alkondarak, jakak eta bestelakoak ere egin izan ditugu. Hori bai, beti, gizonetzkoendako jantziak izan dira. Orduan oibalak saltzen ziren oibarririk, ez zegoen jantzi-dendarik baina urteak joan heinean, aurrerapenen ondorioz, jantziak eginda saltzen hasi eta gero eta lan gutxiago izan dugu".

gusitu da eta borri sastreok ezin diogu aurre egin". Jantzigintza nagusitu zenetik, jende gutxiagok ikasi du josten. "Gaur egun, edozer gauza, eginda aurki dezakegu eta ondorioz, josteko beharra ere gutxitu egin da. Denbora behar da josten ondo ikasteko eta une bonetan beste behar batzuk daude".

Jabierrek, tailerrean

lan egiten zuenean, ikasleak ere izan zituen. "Lehendabizi ikasle gisa aritzen ziren eta behin josten ikasiz gero, langile moduan. Tailerrean, bakoitzak funtzio ezberdina zuen. Neurriak hartu eta mozten ni aritzen nintzen, langileek berriz josi egiten zuten. Kanporako eskaerak izaten genituenez, lanik ez zen falta izaten".

**Euskalduna dotorea**

Betidanik, Euskalduna dotorea izan dela esan da. "Bergara, Arrasate eta Eibarreko jendea besteak beste, oso dotorea zen. Bergaran, igandea beltzen zenean, jendeak jantzi dotoreenak ateratzen zituen armairutik. Prozesio garaian ere, herri osoa begira egoten zenez, parte hartzen zutenak, okasiorako abalik eta dotoreen jantzen ziren. Zein baino zein airosoago jantzen abalegintzen ziren".

Jabierrek eta bere lan-kideek, Santa Luzia eguna garai batean tailerrean ospatzen zuten. "Guztira hamar bat lagun ginen. Neska eta mutil. Gero, tailerra utzi genuenean ere, elkartzten ginen baina gero eta gutxiago ginenez, obitura galtzen joan da".

**Gizonezkoen streptase saioa**

Santa Luzia, sekulako aitzakia izan daiteke afari eder baten ondoren, parranda egiteko. Ostiral gauean jostun ugari ikusiko ditugu kantuan eta dantzan baina afaria biharko utzi dutenak ere izan dira. Afari ostean, parrandarekin bat, "Nice Boys" mutilen ekitaldia ikusteko aprobetxatuko dutenak hain zuzen. Mutil boskotea biluzik ikustera joango direnak asko dira eta emakume bat baino gehiago bere onetik aterako du. Are gehiago, gizonezkoek sarterik ez dutela kontutan izanda.

**Jantzigintzaren garrantzia**

Orduan, traje osoa egitea, praka, jaka eta txalekoa, 125 pezeta balio zuen. "Beste garai batzuk ziren, gaur egun eskulana balio handia du eta edonork ezin du hori ordaindu. Jantzigintza na-



**LORAMENDI KIROLAK**

**ESKI ARRASATE OFERTAK!!!!**

**Alpino, snowboard eta trabesian. Jaso katalogo berria. Konponketa tailerra martxan.**



**ROSSIGNOL**  
 ROSSIGNOL C-4 K eskiak 17.630  
 ROSSIGNOL FD-60 fijazioa 11.160  
 TECNO POWDER Ad. bastoia 1.190  
 Guztira ~~20.700~~  
**MULTZOA: 21.900**



**ROSSIGNOL**  
 ROSSIGNOL DV5-K eskiak 24.990  
 ROSSIGNOL FD-70 fijazioa 13.950  
 ROSSIGNOL AOSTA bastoia 2.600  
 Guztira ~~41.540~~  
**MULTZOA: 31.900**



**SALOMON**  
 SALOMON EVOLUTION 7100 eskiak 48.990  
 SALOMON QUADRAX 800 fijazioa 16.990  
 Guztira ~~65.980~~  
**MULTZOA: 54.900**




## Jubilazioan pentsatzen hasi zara? Pentsio planik egin al duzu?



**Jose Luis Pagaldai**

Lehen aurretiko jubilazioa proposatu zidaten baina oraindik lanean ari naiz. Pentsio planik oraingoz ez dut egin.



**Felix Orive**

Pentsatzen hasi bai baina ez dut pentsio planik egin. Horrelako planen bat egitea ondo legoke Segurantzza Soziala etorkizunean kolokan egon daiteke eta.



**Arantxa Garmendia**

Ez dugu pentsio planik egin nagusiak gara eta. Lehenago egin behar da hori. Baina ondo kotizatu ezkerro ez luke horren beharrik egon behar.



**Martin Garcia**

Ez dut oraindik hori planteatu. Baina jubilatzen garenerako ez dut uste ezer geratuko zaigunik. Zerbaitetan pentsatzen hasi beharko dugu.



**Charo Crespo**


Ez dugu ezer egin. Ez zait gaizki iruditzen baina gu behintzat ez dugu planteatu oraindik. Baina gauzak dauden bezala ikusita, gutxi geratuko zaigu.



**Tere Moreno**

Bai, plan bat egina dugu orain dela hiru urtetik, iloba baten bitartez. Askotan ez dakizu etorkizunean zer gertatuko den, enpresa desagertuko den baina...

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**POL-POL**

**Taberna**

☎ 76 07 78



**Felipe SUDUPE**  
**Hagin klinika**

*Medikuntza eta zirugian  
lizentziatua.  
Estomatologian espezialdua.*

558. kolegiatua.




GIPUZKOAKO ODONTO-ESTOMATOLOGOEN ELKARTEA

**Kontsultarako ordua  
aurretik eskatu.**

Matxiategi 18 behe, ezkerre. ☎ 76 07 66





## Euskarari berea

Duela bi aste, Euskal Herriko hainbat euskara teknikarik eta euskara elkarteetako dinamizatzailek katalanaren normalkuntza prozesuan martxan dituzten hainbat programa ezagutzeko aukera izan genuen. Eta badute zer erakutsi!!

Egia esan hango egoera soziolinguistikoa eta hemengoa ez dira anai bikiak baina norabidea eta pausoak markatzeko benetan izan ziren interesgarriak jardunaldi haiek. Bertan, behin eta berriz, azpimarratu zen plangintza orokor baten premia. Plangintza orokorra esaten denean gizarteko arlo desberdinetan aurrera egiteko aukera emango dugunaz ari gara (hezkuntza, administrazioa, lan mundua, epaitegiak eta abar). Ezin gara arlo batzuetan goiko puntan ibili beste batzuk praka motzetan ditugunean, dena lotuta doa. Zertarako balioko digu gure haur guztiak D eredu ikasteak, gero Unibersitatean eta zer esanik ez lan munduan ez badute hizkuntza horretan aritzeko aukerarik?.

Plangintza orokorra, Guggenheinekin gertatu dena ez gertatzeko: euskalgintza eta kultur arloko taldeei diruak murriztu eta 20.000 milioi gastatu ondoren buru eta teknikari bakar bati ere ez zaio euskara jakiterik eskatu. Ostera, guzti-guztiei eskatu zaie gaztelania eta inglesa jakitea.

Egoera honi buelta ematea behar beharrezkoa eta denon artean egin beharreko lana da. Gizarteak egoeraren kontzientzia hartu eta berari dagokion zirikatzaile lana bete behar du. Agintari eta alderdi politikoei berriz, benetako borondate politikoa eskatu beharko diegu. Frai Ejemplorenak omen dira sermoirik onenak!!

Beraz behar beharrezkoa den euskararen plangintza orokorra eskatzeko zatoz bihar, zapatua EKBek Bilbon "Eman euskarari berea" lemapean antolatu duen manifestaziora.

**Gorka ELORTZA**



## Funtzioa eta organoa

Entzutegi Nazionalaren auziak zerbait erakusten badu, argi eta garbi erakunde funtzioa egiten duela da. "Tribunal del Orden Publico" (TOP) erakunde frankistaren sasikume honek -Miguel Castellsek gogoratu duen bezala- botere publikoen arduradunak epaitzeko gaitasunik ez dauka. Zergatik? Epaitegi berezia delako. Noiz iritsi da krisia? Zenbait epaile eta fiskal Estatuko gerra zikina ikertzen ari zirenean. Zertarako krisia? Gerra zikinean erantzunkizunak dituztenak justiziatik urruntzeko.

Badirudi Entzutegiak dauzkan eskumenak gehiegizkoak iruditzen zaizkiela GALen inguruan ibili izan zirenei. ETaren delituak epaitzeko ez zegoen inolako eragozpenik, instituzioaren zeregin gehiena hortara zuzenduta baitzegoen. Aldiz, botere publikoetako zenbait arduradun justiziapean aurkitu direnean, a ze bronka!!

Hainbat ikasketa atera daitezke Madrilén gertatu den iskanbila guzti honekin. Besteak beste, Entzutegi Nazionala ez dela boterearen inguruan dabilzanean iritziz, leku egokiena beraien baina bakarrik beraien- delituak epaitzeko.

Konklusio gisa: alde itxaropentsua, Entzutegia hiltzorian egon daitekeela. Alderantziz, ilargiaren alde iluna: egun, Justizia aplikatzeko bi eredu daudela hiritarren izaera politikoaren arabera.

**Iñigo URRUTIA**

**J.M. IZAGIRRE**  
Igeltseritza

**Era guztietako igeltseritza lanak**

Loidi Baserria ANGIOZAR  
☎ 76 56 86

**EDEL**  
TAPIZDENDA

*Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

**TABERNA ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta afariak

**Tfnoa: 76 21 21 ANGIOZAR**

■ **Omenaldia Pertxakideei**

Eguakitzean **Pertxako** bazkideek omenalditxo eskeini zieten hainbat urtetan elkarteko presidente izan den **Jesus Mari Egureni** eta zuzendaritza batzordeko beste kideei. Afaldu aurretik,

Egurenek elkartearen alde egindako lanagatik urrezko insignia jaso zuen eta, era berean, **Juan Alkorta, Pedro Egaña, Miguel Lazkano, Luis Gutierrez, Felix Iñiguez eta Eugenio Zabalar**i (ez zuen afaltzera etortzerik izan) zilarrezkoa eman zieten. Aurten hil den **Ignacio**

**Alkortarena**, berriz, bere anaiak jaso zuen. Hermandad Pertxakoek ere urrezko katai bat oparitu zioten Egureni eta bezperan afaltzen izan ziren Pertxako emakumeek, erloju bat. Eguakitzeko afarian 70 lagun inguru bildu ziren eta guztiek primeran igaro zuten.



■ **Realarekin Santanderren**

**Aranzabal Lagunarte**ko kideek Santanderrera irteera egin zuten domekan. Goizeko 9etan, Oñatiko beste 15 lagunekin batera, Bergaratik 40 bat lagun irten ziren Santanderrera. Eguerd aldera Santanderrera heldu eta, ohizko poteoaren ondoren, El Sardinero futbol zelaira abiatu ziren arratsaldean. Bertan jo ta ke aritu ziren partidu osoan zehar Aranzabal eta bere taldekideak animatzen. Realak garaipena lortu zuen eta Aranzabalen jarraitzaileei ez zitza ien itzulera bidaia hain gogorra gertatu. Hurrengo irteera, urtarrilean Logroñora egiteko asmoa daukate.

**KONDE**

**Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57**

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behe  
☎ 76 59 54 BERGARA

**igok eta Txomin**

*Pintura orokorrean.*

*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*

*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*

ANTZUOLA                      BERGARA  
☎ 76 60 39                      ☎ 76 19 98




■ **Musika kontzertua**

Udazken Kulturalaren programazioaren barruan, **Musika Eskolako taldeen kontzertua** izan zen joan zen eguenean Novedades aretoan. Jende dexente izan zen bertan musikari gazteen trebetasuna frogatzeko eta ikusleek **Metal taldeak, Txistu taldea,**

**Soka taldeak, Gazteen Bandak** (azken biak **Alberto Laskurainen** zuzendaritzapean) eta **Maria Jesus Ugaldere**n **Akordeoi Orkestak** eskeinitako piezekin gozatu zuten. Guztira 65 musiko inguruk hartu zuten parte kontzertuan. Ikasle eta musikari finak hauek... Goiko argazkian, Txistu taldearen emanaldiko irudi bat.

**Zertan dihardute ba?**



**Juan Jose Altuna**

Arrasaten jaio eta Bergaran bizi den 53 urteko pintorearen erakusketa ikusgai izango da Arrasateko Harresi aretoan (Iturriotz, 23) gaurtik urtarrilaren 7ra arte. Arrasateko erakusketan Altunak bere ohizko paisaiak erakutsiko ditu jendeaurrean. Aurten, besteak beste, Villa de Olmedo (Valladoli) eta Beasaingo lehiaketetan bigarren sariak lortu ditu eta Azkoitiako Inaxio Iriarte Sarian eta Briviescan, hirugarrena izan da. Erakusketa, astebarruan 6etatik 8etara izango da zabalik eta zapatu eta jaiegunetan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

■ **Urrezko eztaiak**

**Jesus Urbietta** eta **Maria Murguzur** osintxuarrek euren ezkontzako urrezko eztaiak ospatu zituzten azaroaren 30ean. Maria eta Jesus orain **50 urte** ezkondu ziren Itziarren eta urrezko eztaiak ere bertan zelebratu zituzten familiartekoekin batera. Meza entzun ondoren, Bikain erretegian bazkaria egin zuten. Zorionak!!



**DEBA GARAIA**  
**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**ZUBIETA**  
**elektragintza**

**MOTORREN BOBINAKETA**  
**ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behea**  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua**  
**konpromezu barik**



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Inazio Beldarrain

**54 urte ditu eta urte asko Mayc-en lanean ibili arren, hainbat elkartetako bazkari eta afariak prestatzeko zaletasuna izan du. Martxoan hiru urte egingo dituen Azpeitxi jatetxeko jabea, sukaldean aritzen da bere seme-alaben laguntzaz.**

**- Zergatik sukaldari?**

- Betidanik gustatu izan zait eta alabak sukaldari titulua atera zuenean, jatetxea ipini nuen.

**- Azpeitxi izena nondik?**

- Azpeitiarra naizelako.

**- Non ikasi zenuen sukaldaritza?**

- Gehienbat elkartetan.

**- Hobekien gertatzen duzun platera?**

- Guztia ateratzen zait ondo baina parrila ondo menderatzen dudala esango nuke.

**- Plater gustokoena?**

- Muxarra. Arraina oso gustokoa dut.


**- Gorrotagarriena?**

- Baba zuriak.

**- Jendeak zer jaten du gehien?**

- Normalean, fritoak, urdaiazpikoa, txapiroak eta parrilan egindako arraina eta haragia.

**- Egin duzun platerik bereziena?**



*"Aukera dudanean, dantza egitea atsegin dut. Sukaldari izan ezean, mekanikoa izatea gustatuko litzaidake eta Arzak da gehien gustatzen zaidan sukaldaria"*

- Faisan ogia.
- **Sukaldari gustokoena?**
- Juan Mari Arzak.
- **EH-ko jatetxerik hoberena?**
- Arzak.
- **Sukaldari izan ezean?**
- Mekanikoa.
- **Gabon gauerako menu bat.**
- Olio azak, muxarra edo beste arrain mota bat, txuletak, konpota eta turroi piskat.
- **Afiziorik?**
- Egurra lantzea atsegin dut.
- **Zein opari gustatuko litzazuke jasotzea?**
- Edimburgora, 15 egunetako bidaia.
- **Mania bat.**
- Nerbioa naiz.
- **Olentzero ala Erregeak?**
- Erregeak.
- **Dantza egiteko ohiturarik?**
- Aukera dudanean egiten dut. Gustatzen zait.
- **Agintari bat izatekotan?**
- Bat ere ez.
- **Egunkarian, gehien irakurtzen duzun atala?**
- Gipuzkoako saila, herrietako kartak, eskelak eta kirolak.
- **Zein eratako txisteak atsegin dituzu gehien?**
- Pikante samarrak direnak.
- **Irakurri duzun azken liburua?**
- John Grisham-en, "Legitima defensa".
- **Euskal Herriko herririk politena?**
- Oñati.



**Komunikazioan kontzeptu Berria**



**CD-ROM**



**INTERNET**

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoak

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena

*"Enpresan Multimedia Aplikatzeko, oinarrizko Gida"*  
DOHAINIK. ESKA EZAZU !!

Loramendi,4 - SAIOLAN Zentruan -  
20.500 **ARRASATE** - Gipuzkoa -  
Tels.: 943 - 770500 / 790211  
Fax.: 943 - 795701  
Web: [www.danka.es](http://www.danka.es)  
e - mail: [danka@danka.es](mailto:danka@danka.es)

**Gure bezeroak:**

DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,  
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...

DANKA multimedia INTERNET-ean dago ( [www.danka.es](http://www.danka.es) ). Eta zure enpresa ?

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 52 90.

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m2. Banatzeko auke-  
ra, 28 milioi. ☎ 76 24 42.

**Pisua** alokairuan hartuko  
nuke. ☎ (945) 24 83 96.

**Bi oheko logela** berria  
salgai. ☎ 76 51 78.

**Kontsultarako** lokala alo-  
kairuan. ☎ 76 07 84.

**Gela** bat salgai.  
☎ 78 25 85.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 70 82 90.

**Garajea** salgai San Lo-  
rentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** saldu edo alo-  
kairuan jarriko nuke Santa  
Marinan. ☎ 76 47 67.

**Garajea** saldu edo alokai-  
ruan jarriko nuke Burdiña-  
ten. ☎ 76 40 03.

**Kontsultarako** gelak  
alokairuan jartzen ditut Kol-  
do Eleizaiden, Bolun.  
☎ 76 58 91.

**Arkaian**, Araban, 15.460  
m2 salgai. ☎ 76 63 27.

**Pisua** salgai Arrizurin.  
Garajea. ☎ 76 55 28.

**Garajea** salgai Bolun.  
☎ 76 44 89.

**Osintxun** buhardilla sal-  
gai. ☎ 76 15 36.

**DENETARIK**

**Peugeot 505** kotxea (SS-  
S) salgai. ☎ 76 30 01.

**Bi oheko logela** berria  
salgai. ☎ 76 51 78.

**Kerosenozko** estufa sal-  
gai egoera eta prezio one-  
an. ☎ 76 21 71 (Amaia).

**Fiat Tempra** 1.400 SX  
kotxea (SS-AL) salgai.  
☎ 77 06 48 (iñaki).

**Bainuko** ispilua, toaileroa  
eta beste tresna batzuk  
oparitzen ditut. ☎ 76 39 96.

**Opel Astra** kotxea (SS-  
AN) salgai. Egoera onean.  
☎ 76 48 47.

**Gasteizera** joan-etorria  
(8-17.00) egiteko kotxea  
behar dut. ☎ 76 15 76.

**Taberna** traspasatzen da  
Antzuolan. ☎ 76 01 95.

**Montesa** Cota 348 Trial  
motorra salgai. ☎ 76 61 05.

**Negutegia** salgai. 2.000  
m2. ☎ 17 51 05.

**2. eskuko** motorra erosiko  
nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

**Irrati kontroleko** abioia  
salgai. ☎ 76 51 94.

**Kotxe** teledirijitua salgai.  
☎ 76 04 63.

**Alemaniar** artzai txaku-  
rrak (emeak) saltzen ditut.  
☎ 76 53 35/76 32 14.

**Logela** eta frigorifikoa  
salgai. ☎ 78 25 85.

**LANA**

**Lanak** ordenadorez pa-  
satzen ditut. ☎ 76 27 59.

**Ingeles** klaseak.  
☎ 76 40 89 (Gemma).

**Etxeko** lanak egingo ni-  
tuzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

**Emakume** batek zaha-  
rrak zainduko lituzke. Espe-  
rientzia. ☎ 76 48 96.

**OHO** eta ingeles klaseak.  
☎ 76 17 18 (Jesus).

**Mate** eta fisika klaseak  
ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak  
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Etxeko** lanak egiten ditut  
(orduka). ☎ 76 48 39.

**Haurrak** edo helduak  
zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

**Ingeles Filolojian** lizen-  
tziatua, klaseak emango  
nituzke. ☎ 76 41 31.

**Neska** frantses batek  
frantseseko klaseak ema-  
ten ditu. ☎ 76 27 16.

**Majisteritzan** diploma-  
tutako neska batek haurrak  
zaindu edo klaseak eman-  
go lituzke. ☎ 76 48 53.

**Haurrak** zaindu edo etxe-  
ko lanak egingo nituzke.  
☎ 76 31 96.

**Lizentziatuak** BBB eta  
UBI klaseak ematen ditu  
Bolun. ☎ 76 70 40.

**48 urteko** emakume eus-  
kaldunak haurrak zaindu  
edo etxeko lanak egingo  
lituzke. ☎ 76 70 24.

**IKASTARO INTENTSIBO BERRIAK**

**INGELES  
FRANTSESA  
ALEMANA**

**Urtarrilaren 13tik aurrera.**

- HIRU HILABETEKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU T<sup>FRN</sup>
- GOIZEZ ETA ARRATSALEDEZ.


**HONEZ GAIN BESTE  
HAINBAT IKASTARO**

**INFORMAZIOA:**  
Bergarako UNED. (3. pisu)  
☎ 76 06 87



**MATRIKULA ZABALIK!!**

# BONOFOTOA



## Helio Garcia

**Helio Garcia**ak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondoren egindako zozketan bere txartela atera delako. Argazkietan agertzen ziren iturriak herriko zein tokitan aurki ditzakegun galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Toki Eder plaza eta Basalgo** ziren. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Helio Garcia**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

## Zein elizakoak dira irudi hauek?

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara

| 1 TALDEAK                 | P  | J | G.A. | G.K. |
|---------------------------|----|---|------|------|
| 1. A ZE FLAXA ETXAGI      | 21 | 7 | 35   | 8    |
| 2. ERROTAGAIN             | 19 | 8 | 25   | 12   |
| 3. JAUJA OH ZEREZOS       | 17 | 8 | 33   | 21   |
| 4. BAR CANALEJAS          | 13 | 6 | 22   | 16   |
| 5. BILDURBAREK OPEL/LAM   | 13 | 8 | 30   | 28   |
| 6. OGIZUN                 | 9  | 7 | 19   | 28   |
| 7. AZPEITXI JATETXEA      | 9  | 7 | 25   | 21   |
| 8. ARLOTEAK/OILAGORRA     | 7  | 7 | 26   | 20   |
| 9. ORTZI                  | 7  | 7 | 15   | 16   |
| 10. MADURA INDUSTRIAS GOI | 7  | 8 | 14   | 23   |
| 11. MONGATXURRA           | 6  | 6 | 19   | 24   |
| 12. UFALA                 | 5  | 7 | 20   | 30   |
| 13. PAGOMENDI             | 3  | 9 | 15   | 43   |

| 2 TALDEAK               | P  | J | G.A. | G.K. |
|-------------------------|----|---|------|------|
| 1. KAYAK OS JARDINEIROS | 18 | 8 | 36   | 17   |
| 2. ETXAGI               | 18 | 8 | 37   | 23   |
| 3. ARTUSAMAK BERGATRANS | 15 | 8 | 31   | 26   |
| 4. EZINLEIKE            | 14 | 8 | 26   | 18   |
| 5. UVE BIKOITZA JAM     | 13 | 7 | 15   | 29   |
| 6. SOROPOTROAK          | 12 | 7 | 21   | 7    |
| 7. HALTZARI             | 11 | 8 | 25   | 21   |
| 8. LA JUVE              | 10 | 8 | 21   | 19   |
| 9. AGIRREBEÑA JATETXEA  | 9  | 7 | 20   | 21   |
| 10. ERI                 | 9  | 5 | 26   | 18   |
| 11. AGIÑASPI            | 7  | 8 | 15   | 30   |
| 12. INDARGORRI          | 4  | 7 | 7    | 18   |
| 13. AUTOBEREZI          | 3  | 7 | 17   | 30   |

| 3 TALDEAK                  | P  | J | G.A. | G.K. |
|----------------------------|----|---|------|------|
| 1. GUADALEST               | 21 | 9 | 31   | 18   |
| 2. PJS                     | 20 | 9 | 29   | 18   |
| 3. NEKROFIKOS              | 18 | 8 | 31   | 19   |
| 4. MOSKIS                  | 16 | 7 | 31   | 16   |
| 5. TXIPIRON                | 15 | 9 | 25   | 18   |
| 6. FAC                     | 14 | 8 | 23   | 18   |
| 7. JAKINA PATXARAN TEAM    | 13 | 9 | 27   | 33   |
| 8. IGANDEKOAK              | 9  | 7 | 18   | 25   |
| 9. NAHIKARI HOOLIGANS      | 9  | 9 | 31   | 33   |
| 10. EH BITERRAK            | 7  | 7 | 13   | 23   |
| 11. MRW                    | 4  | 7 | 14   | 22   |
| 12. ARI ARI                | 1  | 6 | 9    | 25   |
| 13. CONSTRUCCIONES BERGARA | 1  | 7 | 13   | 30   |

| 4 TALDEAK                 | P  | J | G.A. | G.K. |
|---------------------------|----|---|------|------|
| 1. MANITOU                | 27 | 9 | 69   | 13   |
| 2. ARBE KIROLAK           | 24 | 9 | 54   | 23   |
| 3. ETENGABE               | 21 | 9 | 34   | 14   |
| 4. OSINTXU                | 19 | 9 | 37   | 21   |
| 5. MATXAKATEGI            | 16 | 9 | 22   | 16   |
| 6. SLO                    | 10 | 9 | 28   | 37   |
| 7. PANORAMIX              | 9  | 8 | 24   | 33   |
| 8. KOMANDO PIPERRAK       | 9  | 9 | 20   | 34   |
| 9. XURRUPAK               | 9  | 8 | 16   | 28   |
| 10. AMILOTX               | 8  | 9 | 18   | 29   |
| 11. ALDOKA MALDOKA        | 8  | 9 | 21   | 32   |
| 12. PITTIXAK              | 7  | 9 | 20   | 25   |
| 13. PATA NEGRA            | 6  | 8 | 15   | 46   |
| 14. POLIDEPORTIVO TABERNA | 4  | 8 | 12   | 40   |

## Jokoz kanpo



### Manuel Moreno "Manis" ARLOTEAK/OILAGORRA

#### ZER MODUZ ZOAZTE TXAPELKETAN?

Erdialdean, baina oso gaizki ari gara jokatzeko.

#### ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, atezaina eta txarrena aurrelariak.

#### KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

#### PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Eguerdian.

#### TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa Etxagi.

#### JOKALARIRIK ONENA?

Paco Vallejo.

#### SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

8 eta 2 Ufalarri.

#### ETA JASOTAKOAZ?

10 eta 1 egin dugu Errotagainen kontra.

#### ZE POSTUTAN ESPERO DUZUE AMAITZEA?

Orain arte zela ibili garen ikusita, 4. edo 5. postuan amaitzen badugu ondo.

#### LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

#### MUNDUKO KIROLARIK ONENA?

Michael Jordan.

#### EUSKAL HERRIKOAZ?

Miguel Indurain.

#### JATEKO PLATER BAT?

Paella.

#### EMAITZAK

|                                      |      |
|--------------------------------------|------|
| JAUJA OH ZEREZOS-PAGOMENDI           | 5-2  |
| ARLOTEAK/OILAGORRA-AZPEITXI JATETXEA | 2-3  |
| BILDURBAREK OPEL/LAM-ERROTAGAIN      | 2-4  |
| ORTZI-MADURA INDUSTRIAS GOI          | 8-2  |
| OGIZUN-PAGOMENDI                     | 1-5  |
| HALTZARI-ETXAGI                      | 4-1  |
| KAYAK OS JARDINEIROS-LA JUVE         | 5-3  |
| EZINLEIKE-INDARGORRI                 | 3-2  |
| AUTOBEREZI-AGIRREBEÑA JATETXEA       | 6-3  |
| UVE BIKOITZA-ERI                     | 0-12 |
| EZINLEIKE-ARTUSAMAK BERGATRANS       | 8-1  |
| INDARGORRI-ETXAGI                    | 2-5  |
| SOROPOTROAK-AGIÑASPI                 | 2-1  |
| TXIPIRON-FAC                         | 1-1  |
| NAHIKARI HOOLIGANS-NEKROFIKOS        | 5-6  |
| PATXARAN TEAM-PJS                    | 1-2  |
| NAHIKARI HOOLIGANS-GUADALEST         | 1-2  |
| TXIPIRON-NEKROFIKOS                  | 2-3  |
| PITTIXAK-ALDOKA MALDOKA              | 0-3  |
| PANORAMIX-PATA NEGRA                 | 1-2  |
| MATXAKATEGI-AMILOTX                  | 4-3  |
| SLO-MANITOU                          | 3-14 |
| PITTIXAK-ETENGABE                    | 0-2  |
| OSINTXU-KOMANDO PIPERRAK             | 10-1 |
| ARBE KIROLAK-ALDOKA MALDOKA          | 2-1  |

#### PARTIDUAK

##### Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-PATA NEGRA • ARBE KIROLAK  
10:00: ARBE KIROLAK-ETENGABE • PANORAMIX  
11:00: PANORAMIX-MANITOU • ETENGABE

##### Zapatuan kanpoan

09:00: OSINTXU-PITTIXAK • FAC  
10:00: FAC-MRW • MOSKIS  
11:00: NEKROFIKOS-MOSKIS • MRW

##### Domekan barruan

09:00: ARLOTEAK-BAR CANALEJAS • BILDURBAREK  
10:00: BILDURBAREK A ZE FLAXA ETXAGI • AZPEITXI  
11:00: ORTZI-AZPEITXI JATETXEA • UFALA  
12:00: UFALA-MADURA INDUSTRIAS GOI • MONGATXURRA  
13:00: OGIZUN-MONGATXURRA • MADURA  
16:00: EZINLEIKE-LA JUVE • AGIRREBEÑA JATETXEA  
17:00: UVE BIKOITZA JAM-AGIRREBEÑA • KAYAK OJ  
18:00: KAYAK OS JARDINEIROS-AGIÑASPI • INDARGORRI  
19:00: INDARGORRI-ERI • SOROPOTROAK  
20:00: SOROPOTROAK-AUTOBEREZI • ERI

##### Domekan kanpoan

09:00: PANORAMIX-XURRUPAK • PATA NEGRA  
10:00: POLIDEPORTIVO-PATA NEGRA • C. BERGARA  
11:00: C. BERGARA-MRW • MOSKIS  
12:00: GANBARA-MOSKIS • IGANDEKOAK  
13:00: IGANDEKOAK-EH BITERRAK • GANBARA  
16:00: PATXARAN TEAM-NAHIKARI • ARBE KIROLAK  
17:00: ARBE KIROLAK-KOMANDO PIPERRAK • ETENGABE  
18:00: MATXAKATEGI-ETENGABE • KOMANDO PIPERRAK

**KARTELDEGIA****Igerilariak  
Gipuzkoako  
selektzioarekin**

Eneritz Muguruza, Antxon Maiztegi eta Gorka Gonzalez igerilariak Gipuzkoako selektzioarekin izango dira asteburu honetan Laegazpin Akitaniaren aurka jokatu duten neurketetan. Hiru igerilariak lortutako denbora onei esker izango dira Gipuzkoa ordezkatzeko.

**Pol-Poleko  
urteko kuota**

Pol-Pol Mendizale Taldeak gogorazten die 1.996ko kuota eskuz ordaindu behar dutenei bulegoetatik pasatzeko asteleheneetik ostegunera iluntze partean. Eski edo mendi federazioko karneta atera nahi dutenak ere elkarte bulegoetatik pasa daitezke.

**Baque txapelketako finalak  
domekan jokatuko dira**

**Baque** pilota torneoa-ren finalak jokatuko dira igandean eguerdiko 12etan Udal Pilotalekuan. Lehenengo partidua kadeteena izango da eta Etxabe eibartarrak Arrieta soralezarraren aurka jokatu du. Jubenil mailan, berriz, Etxaniz azkoitiarrak Elola lasartearen kontra neurtuko ditu indarrak.

Lehenengo partiduan pilotazaleentzat Etxabe eibartarra da faborito nagusia, baina kontu handia izan beharko du Arrieta-rekin, orain arte kadete mailan jokatu duen partidua oso parekatuak izan baitira.

Jubeniletan, Etxaniz azkoitiarra da pronostiko guztien arabera faborito nagusia. Izan ere, Etxanizek adinez kadete mailan jokatu beharko luke, baina erakutsi duen maila onagatik kategoriaz igo dute. Gainera, txapelketan zuen areriorik nagusi-



Muguruza eta Martin bergararrak ondo aritu dira txapelketan.

siena Aldazabal donostiarra final laurdenetan kanporatu zuen.

**Bergarrek lan polita**

Baque txapelketa BKEko pilota sailak antolatatu du eta txapelketaren balorazio positiboa egin du Reyes Azkoitia pelota el-

karteko entrenatzaileak. *"Pilota partidu onak ikusi ditugu eta frontoian nabikoa jende izan da partiduak ikusten. Horrez gain, Martin eta Muguruza bergarrek egindako lanarekin oso pozik nago, biek lehenengo kanporaketa gainditu baitute"*.

**Fernando Aspiazu BKEko  
futbol entrenatzaile berria**

Fernando Aspiazu oñatiarra izango da denboraldi amaierara arte BKEko preferente mailako futbol taldearen entrenatzailea. Orain arte entrenatzaile izan den Goi Arrieta atxabaltarrak lan arazoengatik taldea laga behar izan du. Entrenatzaile berria Aloña Mendi taldean aritu da orain arte eta astelehenean bertan hasi zen entrenatzen. Oraindik taldea ondo ezagutzen ez duen arren, ohituta dago jokalariek gazteak entrenatzen. Izan ere, Aloña Mendi taldeko maila gehienetan entrenatu du eta San Vicente bergararrarekin batera 3. mailara igo zuen talde oñatiarra. Bestalde, BKEk Arrasateren aurka banako berdinketa lortu ondoren Mundaroren kontra jokatu du asteburuan kanpoan.



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Eibartarrak

2. Erregional maila.

Domeka. 16:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Hernani

Ohorezko mailako kadeteak.

Zapatua. 17:15. Ipintza.

## ◆ Bergara-Arrasate

2. mailako kadeteak.

Zapatua. 15:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Zumaiako

Emakumezkoak.

Domeka. 11:30. Ipintza.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Pulpo

Senior mutilak.

Zapatua. 17:45. Kiroldegia.

## ◆ Bergara-Ereintza Txiki

Kadete mutilak.

Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Aloña Mendi

Kadete neskek.

Zapatua. 12:15.

Mariaren Lagundia.

## ◆ Bergara-Larramendi

Kadete mutilak.

Zapatua. 10:00.

Mariaren Lagundia.

## PILOTA

## ◆ Kluben arteko Txapelketa

Bergara-Donostia. Banaka.

Eguakitza. 22:00.

Udal Pilotalekua.

Bergararik Igor Gutierrezek

jokatuko du. Bestalde, BKEko

pilota saileko pilotari gazteek

lau t'erdian jokatuko dute euren artean.

## Josu Arana

## 18 urte eman ditu BKEn futbolean

**Josu Aranak 18 urtez jokatu du BKEn eta joan zen urtean taldea laga ondoren, omenaldi beroa jaso zuen joan zen eguakitzean Agorrosinen. Berarekin hitz egin dugu.**

**- Zer moduz joan zen asteko omenaldia?**

- Oso ondo. Ez nuen espero horrenbesteko omenaldia. Hasieran lotsa pixka bat emate zidan, baina gero oso polita izan zen omenaldia.

**- Zela hasi zinen futbolean jokatzeko?**

- 8 urterekin Seminarioan txapelketa bat jokatu nuen eta hortik BKEra pasatu nintzen. Lehenengo partidua Oñatin jokatu genuen eta 10 eta 1 galdu genuen. Aurrealdean ezker hegalean hasi nintzen jokatzeko, gero jubeniletan erdikaldera pasatu ninduten, jubeniletan lateralera eta azkenean erdikaldean jokatzeko bukatu dut.

**- Zerbait irabazi duzu urte hauetan?**

- Infantiletan 11 penalti jaurti ondoren Aretxabaletari Gipuzkoako kopa irabazi genion. 23 urtez azpikoetako Gipuzkoako kopa irabazi genuen Hernaniren aurka Aotxan jokatutako partiduan. Preferente mailara igo genuen urtean Rotetari irabazitako partidua ere oso polita izan zen.

**- Futbolaren gauzarik onena?**

- Aurretik esandako partiduez gain, lagunak egitea da futbolaren gauzarik onena. Gipuzkoa

osoan zehar jende asko ezagutu dut eta eurekin sekulako tratua daukat futbolari esker.

**- Damutzen zara futbola lagatzeaz?**

- Ez, laga nuen eta berriro bueltatu nintzen, baina gogo gutxirekin sakrifizio handia eskatzen duelako.

**- Beste talderen batera joateko eskaintzarik izan duzu?**

- Ez dizut esango norena, baina joan zen urtean izan nuen aukeraren bat.

**- BKE lagatzean zerbaitek pena eman al dizuz?**

- Pena 3. mailara ez igozkeak. Azkenengo urteetan

3. mailara igozteko esperantzarekin jarraitzen nuen, baina ezin izan da eta ez naiz egon behar horri itxoi ten.

**- Ezin izan duzue 3. mailara igo.**

- Oso nekeza da igoztekoa. Taldea oso konpletua izan behar da eta jokalaria beteranoak eduki behar dira. Gainera, fitxaketa onak egin behar dira.

**- Beste zedozer esan nahi duzu?**

- Bai, eskerrak eman nahi dizkiot BKEri emandako guztiagatik, eta baita urte hauetan nirekin jokatzen aritu direnei ere, aguantatu nautelako.



Bergarako zalegoak bereziki maitatu duen futbolaria izan da Arana.

**“Eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan nirekin jokatu dutenei”**



Argazkia: Imanol Iriagarain

## Institutuko boleibol taldea

**I**pintza Institutuko argazki artxiboetan miatu dugu oraingoan ere, eta goian duzuen hau topatu dugu. Institutuko boleibol taldea osatzen zuten 16 urte inguruko mutil koskorrak dira. Argazkia orain dela 20 bat urtekoa da.

Kamiseta ofizial eta guzti, ondo dotore uniformatuta, agertzen zaizkigu. Kirolari onei dagokien kamiseta dotoreak, nahiz eta bat edo batek zigarroa eskuan izan. Entrenatzaileak harrapatuko balu...

Beno, kontuak alde batera lagata, aipatu ditzagun argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Mata, Xabier Azkarate, Jose Antonio Azpeitia, Felix Alzelai, Fernando Azkarate eta Joseba Gabilondo.

**Makurtuta:** Inaki Otaño, Fernando Jauregi, Ibon Linazisoro, Joxean Iza eta Jon Larrañaga.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

# MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89  
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

# umelaga

## JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



MODELO BERRIAK  
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

# Etor zaitez SOFA LEKUrA eta...



aukera ezazu

"EROSOTASUNARE" B

500 modelo artean 0. zen



★ "Eroso eseri zaitez" K



**Sofa**  
leku

Zigarrola,1 • ARRASATE • Tel. 77 14 92



Amuebladora  
Mondragonesa

Zigarrola,1 • ARRASATE • Tel. 77 14 92



a, eme... interiores

Garibai,9 • ARRASATE • Tel. 77 14 92 OPE